

Bigarren hizkuntzaren eskurapenaren ikerketak: Rod Ellis-i erantzunez*

Diana Hopkins eta Mark Nettle

1993ko urtarrileko *ELT Journal*en Rod Ellis-ek, Japoniako Temple Unibertsitateko Linguistika Aplikatuko irakaslea denak, ikasgelan bigarren hizkuntzaren eskurapena errazten eta bultzatzen duten baldintzak aztertu zituen. Orduko lan hartan, Ellis-ek indar bereziaz azpimarratu zuen gramatikaren "itzulera" EFLeko¹ eskoletara. Artikulu honetan EFLeko bi irakaslek ongi etorria ematen diote ikerketaren emaitzak eskolako lanera ekartzeko Ellis-ek egin duen ahaleginari, baina aldi berean adierazten dute Ellis-ek gaur egungo eskolako lanaz dituen zenbait uste ez direla zuzenak, eta gramatika irakasteko proposatzen dituen zenbait ideia "alternatibo" dagoeneko ondo sartuta daudela eskolako praktikan. Autoreok gramatikaren kontzientzia piztea, argibideak eskatzea eta atazen motibazioa izango dituzte mintzagai bereziki, eta Ellis-ek gaion inguruan dituen usteak aztertuko dituzte. Argitaratuta dauden materialak aintzat hartuta, bestalde, egileok komentatuko dute nola ideia horiek guztiak badaukaten eragina EFLeko eskoletan.

Sarrera

1993ko urtarrileko *ELT Journal*en Rod Ellis-ekin egindako elkarriketarak, lehen ikusi batera, konfidantza itzultzen die EFLeko irakasleei. Argi dago Ellis-ek begirune handia diela irakasleei, eta ikerketa eskolako lanari estu lotuta egon beharko litzatekeela aitortzen du:

Niri iruditzen zait irakaslanak emandako esperientzia eta ikerketa eskuz esku joan beharko liratekeela beti, eta, ahal den neurrian, elkarren berri eman beharko lioketela bata besteari. (1993: 10).

Gramatika irakasteari dagokionez ere, Ellis-ek bihotz ematen digu. Krashen-en ideiarekin eraginak –hau da, "input ulergarriak" bakarrik ezar ditzakeela behar diren baldintzak ikasleek gramatika eskura dezaten– deseroso sentiarazi ditu irakasleak eskolan gramatika landu nahi izan duten bakoitzean, baina, guztiarekin ere, irakasleek ez dute sekula gramatikaren irakaskuntza erabat baztertu gura izan. Ellis-ek gramatika irakasteko ideia praktikoa batzuk ere zirrimarratu ditu, ikasgelako mundua batere arrotza ez zaiola erakutsiz. Hala ere, puntu batean geure desados-

tasuna adierazi *nahi genuke*. Izan ere, EFLeko irakasleek ikuspegitik, esan behar dugu Ellis-ek gramatika irakasteko planteamendu berritzaileak aurkeztu dituenetako batzuk ondo errotuta daudela ikasgelako praktikan. Ellis-ek ukitutako zenbait gai komentatuko ditugu, berak aztertutako ordena berean, ahal den neurrian.

Hizkuntza sortzea dela eta

Ellis-ek adierazi du APP planteamendua –Aurkezpena, Praktika Kontrolatua, eta Praktika Gehiago/Praktika Askea etapak biltzen dituenak– ez dela baliagarria helburua ikasleek xede-hizkuntza sortzea denean. Honelaxe dio:

“Eta, hala ere, hizkuntz irakaskuntza oraindik konprometituta sentitzen da inputa kontrolatzeaz gain ikasten dena ere kontrolatzen ahalegintzeko.” (ibid.: 5)

Egia da hizkuntz irakasleek sarritan APP sekuentzia jarraitzen dutela, baina xede-hizkuntza sortzea ote da benetan euren helburua? Gehienetan irakasleek pentsatzen dute praktika gehiago/praktika askearen etapa ikasleek xede-hizkuntza erabiltzeko aukera bat dela, eta –askoz inportanteago izan daitekeena– etapa honetan ikasleek eskakizun komunikatiboak ere egiten zaizkiela. Areago, praktika askearen ostean feedbacka egokiro bideratuz, ikasleek erakusten zaie etorkizunean zelan *erabil lezaketen* hizkuntza modu etekintsuan; Ellis-en hitzetan, ikasleek ikasten dute “...zer den azken buruan menderatu beharko dutena”.

Ikasleek xede-hizkuntza erabiltzeko “aukera” honen adibide ona “Hilketaren jokoak” dugu, *Headway Upper-Intermediaten* azaltzen dena (Soars, 1987: 80). Egileek, eta irakasleek, probabilitatea eta gertagarritasuna adierazten dituzten aditz modalak lantzeko ekoizpen-etapatzat erabiltzen dute joko hau. Gure esperientziaren arabera, ikasleek ez ohi dituzte modal horiek erabili, baina, feedback zentzuzkoaren bidez, aditzok zelan erabil zitzaizketen erakusten diegu, eta eskola bukatzen denean ikasleak jabetuago daude menderatu beharko dutena zer den.

Praktika eta “kontzientzia piztea”

Jabetuago egotearen ideia horrek Ellis-ek egindako bereizketara garamatza. Ellis-ek gramatika *praktikaren bidez* irakastea eta gramatika *kontzientzia piztearen bidez* irakastea bereizten ditu, eta, dirudienez, irakasleek lehenengoari lotu eta bigarrena bazter uzteko joera dutela uste du. Honetara definitzen du *praktika*:

... gramatika-jarduera bat, non ikasleak esaldi batzuk sortzeko eskatzen zaion, esaldiok jardueraren helburua den ezaugarri gramatikaren adibide direlarik. (1993: 5)

Eta honela definitzen du kontzientzia piztea:

... jarduera mota bat, non ikasleak ezaugarri gramatikak bat ulertzera heltzea bilatzen dugun...baina ikasleak eskatu barik egitura gramatikak zehatz hori erakusten duten esaldiak sortzeko... (ibid.: 5)

Irakasleak baliatu *egiten* dira kontzientzia pizteko ariketez gramatika

irakasteko. Gramatika puntu “korapilatsua” denean bereziki, irakasleek *hartzailerean erabilera* aurkeztuko dute, ez *ekoizlerean erabilera*, hasieran behintzat. Horren adibide ona dugu, esaterako, irakasle batek “apurtarazi zion” egituraren forma eta erabilera azpimarratzen ditue-
nean irakurgai bateko pasarte bat ulertzen laguntzeko, baina ikasleei ezer ekoizteko eskatu gabe. Hala ere, gaur egungo EFLeko klaseetan askoz ere sarriago gertatzen da bi hauek elkarri lotuta egotea, hots, kontzientzia piztea eta praktika batera erabiltzea, eta askotan eskola bat berean. Batak ez du bestea baztertzen, eta arrazoi asko dago hori pentsatzeko. Lehendabizikoa irakaslanaren premia praktikoei dagokie, premia horiek askotan behartzen baitituzte irakasleak teorikoen eskabideei jaramonik ez egitera. Eskolara datozenean ikasleek espero dute klasearen bukaeran gai izatea lehen ez zeuzkaten hizkuntz trebetasunak edo hizkuntz ezaugarriak erabiltzeko, eta uste horren presioa areagotu egiten da denborak ezartzen dituen mugekin: izan ere, ikasle heldu gehienek asteen bi ordutik sei ordura besterik ezin diote eman eskolara etortzeari. Bigarrenik, ikasle asko frustratu egiten dira hizkuntzarekin aurrez aurre jartzen ditugunean hizkuntza hori ulertuko dutelako ustean, baina berori erabiltzeko aukerarik ematen ez diegunean. Beti egoten da ikasleren bat galdetzen duena: “Baina esan daiteke, adibidez, ...?” Eta, hirugarrenik, irakasleek badakite ikasgelan hizkuntza praktikatzek ez duela bere horretan ziurtatzen eskolatik kanpo berez-berez ekoiztuko denik, baina kontzientzia pizteko prozesua ondo doan ala ez konprobatzeko bide baliagarria da, ikasleei konfidantza irabazten laguntzeaz gainera.

**Erroreak
zuzentzea eta
“argibideak
eskatzea”**

Ellis-ek gramatikari erreparatzen dioten jarduerak eskatzen ditu, eta dio zaila dela ikasleak egitura jakin bat erabiltzera behartuko dituzten jarduerak diseinatzea, irakasle eta materialen egile gehienek aitortuko dutenez. Beraz, jarduera bat *burutzearen beraren garrantzia* azpimarratzen du, diseinuari kontrajarrita. Ildo horretatik, Ellis-ek adierazten du lortu nahi den gramatikarekiko arreta hori “argibideak eskatzearen bidez” eskura daitekeela, berak dioen moduan. Adibide gisa, iraganaldia erabiltzea bilatuko lukeen jarduera bat proposatzen du:

... arretagunea iraganaldira eramateko modu bat horixe izan daiteke, ...ikasleak iraganaldia zuzen erabiltzen ez duen bakoitzean irakasleak argibideak eskatzea. Horrek aukera emango dio ikasleari bere adierazpena berriro formulatzeko. (ibid.: 7)

Hartara, ikasleak esandakoa berformulatzea bilatuko litzateke, baina arreta hizkuntz errorera bideratu barik. Horretan, “argitasunak eskatzea” eskolako “zuzenketaren” beste muturrean egongo litzateke, Ellis-ek ikusten duen moduan behintzat. Izan ere, zuzenketak, Ellis-en ustez, hizkuntz errorera eroaten du ikaslearen arreta. Ellis-i hemen oharkabea joan zaiona, dirudienez, zera da, EFL eskoletako “zuzenketak” teknika-eremu zabala biltzen duela, eta xedea ez dela ikasleak lotsatzea, baizik eta beroriek bultzatzea beren adierazpena berriro pentsatu eta berformultzera. Teknika tipiko bat Ellis-ek berak aipatzen du, “Barkatu?” edo

agian “Eh?” esatearena, berformulazioa lortzeko. Hala ere, argibideak etengabe eskatzen egoteak traba egin ahal du jarduera komunikatiboan, bai eta berori zeharo moztu ere; eta gerta daiteke eten horiek ikasleak desmotibatu ere egitea. Beste arazo praktikoa bat ere badago, hots, hama-sei-hogei laguneko eskola batean irakaslea ezin daitekeela leku guztietan aldi berean egon, argibideak eskatzeko. Areago, jarduera komunikatibo baten helburua, duda barik, komunikazioa da; ikasle batek badio “nik barazkiak bakarrik jaten ari naiz”, eta irakasleak ulertzen badu horrek “ni barazkijalea naiz” esan gura duela, komunikazioa lortu egin da, eta argibideak eskatzea prozesu artifiziala izango da, egokiago izango litzateke kasu horretan “zuzenketa” egitea. Ellis-ek ikasleei komunikazio saioak irudituko zaizkien jarduerak erabili nahi ditu, baina badirudi argibideak eskatze horrekin aldentu egiten dela komunikazioaren helburutik. Izan ere, gehiago ematen du zuzentasunari ematen zaiola indar, jarioaren kaltetan.

Motibazioa

Ellis-ek hiru motibazio-mota aipatzen ditu: instrumentala, integratzailea eta atazaren motibazioa. Ondo jabetuta dago irakasleek kontrol gutxi izan dezaketela aurreneko bietan, baina hirugarrenean irakasleak zeregirik izan dezakeela uste du, bere hitzetan “[lan itzela egin dezakete] jarduera-mota desberdinen burutzean berezko interesen bat [pizten saiatzeko]², eta, dioenez, “badirudi batzuk ildo horretatik ari direla lanean” (ibid.: 9). Irakasle legez, nekez bururatu ahal zaigu eskolako atazaren bat non lehendabiziko helburua ez den motibazioa bera. Motibazioak sekula ez du galdu erdi-erdiko tokia irakaslanaren eskenatokian, eta beharbada motibazioari begi emanez saiatu ahal izango gara erantzuten Ellis-ek BHEren ikerketei leporatzen dizkien galdera horiek: “zeintzuk dira eskolan BHE errazten eta bultzatzen duten baldintzak?” eta: “zelan sortu ahal ditugu baldintza horiek ikasgelan?” (ibid.: 4). Hau ez da lekua atazak motibatzeke metodoak zehatz eta mehatz aztertzeke, baina EFLeko irakasleek ondo ezagutzen dituzten metodoen artean honakoak aipa genitzake, besteak beste: ariketak ikasleen bizitzen arabera pertsonalizatzea, beren interes eta ezagutzen arabera esanguratsuak izango zaizkien gaiak kontu handiz hautatzea, eta ikasteari beldurra kentzea zenbait hurbilketa humanistikoren bitartez.

Gramatika-jarduerak eta materialak

Lehenago azaldu dugun bezala, irakasleak saiatu egiten dira dagoeneko gramatikaren kontzientzia pizten. Gramatikaren kontzientzia pizteko jardueraz mintzo denean, Ellis-ek haxe proposatzen du:

...prestatuko lirateke jarduera batzuk, zeinetan ikaslea bultzatuko genukeen irakaslearen laguntzaz arau gramatikal bat antzematen ahalegintzera, hots, bere kabuz gramatikako puntu batez zerbait ikasten saiatzera. (ibid.: 10)

Berriz ere zeharo ezaguna egiten zaigu hau. *Discover English* aipatzen du (Bolitho and Tomlinson, 1980), baina ez ditu aipatzen irakasleek erabilitako beste liburu batzuetan azaltzen diren jarduerak, goiko printzipio

hori bultzatzen dutenak. Batzuk irakasleentzat egindako liburuak dira, hala nola *The English Verb* (Lewis, 1986) (RSA Dip TEFLA atera nahi dutenentzat gomendatua), baina beste batzuk ikasleentzako liburuak ditugu, adibidez *Headway* sailekoak, edo *The Anti-Grammar Grammar Book* (Hall eta Shephard, 1991). Hizkuntza aurkezteko erabiltzen den “gidaturiko aurkikuntzaren” metodoa –hau da, adibideez edo testuinguruaz baliatuz ikasleek gramatika-arau bat ateratzea– oso zabalduta dago irakasleen artean. Hala berean, Ellis-ek “interpretatzeko gramatika-atazez” egiten du berba, gramatika irakasteko gaur egun erabiltzen diren bideen alternatiba legez. Halako atazak...:

...oso input egituratua emango die ikasleei, eta egituratua diot, input hori manipulaturik egongo delako irakatsi gura dugun egitura gramatikaren adibideak jaso ditzan. (1993: 11)

Ikasleek ez lukete, horren arabera, egitura sortu beharko, nahiko izango lukete ulertzea. Helburu bakarra ulertzea bada, galde egiten diogu geure buruari ez ote litzatekeen egokiagoa izango material erreala edo ia erreala erabiltzea, manipulaturik baliatu barik; izan ere, irakasleei beti irudituta zaie material manipulatuak egokiagoak direla praktika kontrolatuko ariketak egiteko.

Ondorioak

EFLeko eskola modernoak asko dio eskertzeko ikerketari, eta, azkenaldion, BHEren ikerketari bereziki. Egia da indarra “zelan irakatsiko dut” galderatik “zelan ikasten dute ikasleek, eta zelan erraztu ahal dut nik ikaste hori?” galderara igaro dela. Hori guztia baliagarri izateko, ezinbestekoa izango da ikerketaren eta praktikaren artean elkarriketa egotea, Ellis-ek argi eta garbi aitortzen duenez. Hala ere, elkarriketa hori esanahitsuagoa izango bada, alde batetik irakasleek aintzat hartu beharko dituzte ikerketaren emaitzak, eta, bestetik, ikerketak erakutsi beharko du ikertzailea ohartuta dagoela gaur egungo eskolan egiten den lanaz, eta, oso garrantzitsua dena, prest dagoela ikasleen benetako espektatibei erantzuteko.

Itzultzailea: Ana Isabel Morales

Oharrak

* Ingelesezt “Second language acquisition research: a response to Rod Ellis” *ELT Journal* (48/2: 157-161, 1994ko apirila) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

1 EFL: English as a Foreign Language, hots, ingelesa hizkuntz arrotz gisa. I. O.

2 Kortxeteak geureak dira. I. O.

Bibliografia

Bolitho, R and Tomlinson, B. 1980 *Discover English: A Language Awareness Coursebook*. London: Heinemann.

Ellis, R. 1993. Second language acquisition research: how does it help teachers? An Interview with Rod Ellis. *ELT Journal* 47/1: 3-11.

Hall, N. and Shephard, J. 1991. *The Anti-Grammar Grammar Book*. Harlow: Longman.

Lewis, M. 1986. *The English Verb: An Exploration of Structure and Meaning*. Hove: Language Teaching Publications.

Soars, J. and Soars, L. 1987. *Headway Upper-Intermediate*. Oxford: Oxford University Press.

Egileak

Diana Hopkins eta Mark Nettle British Council-eko

irakasleak dira Kuala Lumpurren, Malaysian. Bien artean hamahiru urtetik gorako esperientzia biltzen dute EFLEko irakasle gisa Txinan, Japonian, Turkian, Bangladeshen, Malaysian eta Erresuma Batuan. *Passport to IELTS*en egileak dira, RSA/UCLES IELTS azterketa ateratzen gura dutenentzako trebetasun eta praktika liburua, hemendik gutxira Macmillanek argitaratuko duena.